

Bere garaikideek harmonia, oreka, azpimarratzen dute gizon honen izaera definitzeko. Baita baikortasuna eta sinpatia ere. Argazkietan gizaseme egoki eta dotorea ageri zaigu, sasoian, hala hil baitzen, berrogeita bederatzi urte bete gabe. Bere bizitzaren emaitzak luze gainditzen du, ordea, epe hori; izan ere, Euskal Pizkundek mendearen lehen hiru hamarkadetan izan zuen kronikari, eragile eta hedatzaile bikain eta nekagaitzenetako baten aurrean gaude. *Euskalerriaren Alde* eta *Euskal-Esnalea* aldizkarien arima, Eusko Ikaskuntzari sorrera emango zion kongresuaren idazkari (Oñati, 1918), tituluek baino hobeto, dena den, bere idatzi eta ekintzetan aurki litekeen herrizaletasun bateratzaile eta ikuspegi zabalekoak laburbiltzen ditu gizon honen nortasuna eta ondarea.



Gregorio Mujika, 1882-1931. Argazkian, 1930 urte aldera.

JAKINTZA ETXETIK

Ormaiztegin jaio zen Gregorio Mujika, 1882ko abenduaren 24an, goizeko bostetan. Bost senideren artean erdikoa, aurretik zituen Dolores eta Remedios arrebak, eta atzetik etorriko ziren Leandro eta Jose. Gregorio Jesus Bonifazio izenak ezarri zizkieten, baina lehena bakarrik erabili zuen. Gurasoak Inazia Mujika, Itsasokoa, eta Serapio Mujika ormaiztegiarra zituen. Biona edo Muxika deituriko etxe ederrean bizi ziren, Beasaindik Zumarragarantz doan errepidearen ertzean, herriaren erdi-erdian.

Familiatik jaso zuen Gregorio Mujikak jakintzarako hazia eta giroa. Izan ere, Serapio Mujika, notarioa

ofizioz, Gipuzkoa osoko artxibategien ikuskatzaile izatera iritsiko zen, zenbait herritako artxiboak zuzendu ondoren. Artxibategien miaketak historian aditua izatera eraman zuen Serapio, eta honela, Espainia eta Frantziako Historiako akademien kide izendatu zuten, eta Gipuzkoako kronikari. Liburu eta aldizkari ugaritan zabaldu zituen aurkikuntzak, historiaren alde xume eta bitxiei muzin egin gabe. Garaiko euskalari ospetsuenen lagun —Azkue, Urkijo eta abar—, Serapiok ireki zion bidea semeari euskalgintzan.

Ormaiztegi, Beasain, Donostia eta Bergara artean osatu zituen lehen ikasketak eta batxilerra Gregoriok. Bergarako Dominikoen Seminarioko egonaldiak (1896-1900) utzi zion agian arrastorik nabarmenena, gerora, 1912an,



Mujikatarak
1889 aldera.
Gazteena, Jose,
oraindik jaio
gabe. Beheko
ilaran ezkeretik
lehena,
Gregorio.



Bergarako Seminarioan, 1897. Beheko ilaran,
eskuinetik hirugarrena, Gregorio.

Euskalerrriaren Alde-n idatzitako ikasle-ohien bilerako kronikan ageri denez. Han, Bergaran, ezagutu zuen gero euskalgintzan kide izango zuen Bonifazio Etxegarai.

Horrela bada, 1900eko uztaillean batxiler-tituluaren jabe egin zen Mujika. Ordurako urtebete zerraman familiak Hondarribian bizitzen, Serapio bertako artxiboa antolatzen joana baitzen, baina beti ere Ormaiztegiko etxea utzi gabe. Uda Ormaiztegi eta Hondarribia artean igarotzen zuen, beraz, Gregoriok.

Batxilerra osaturik, peritu industrial ikasi zuen Madrilén, Callao plazatik hurbil dagoen Jacometrezo kalean bizi zela. Ondoren Valentzian Injinerutza Mekanikoa egin zuen, eta Bartzelonako Unibertsitatean berriz, Analisi Matematikoko ikasgaia. Beraz, heziketa tekniko eta zientifikoa nagusitu zen bere unibertsitari-aldian, baina ordurako, letretarako joera nabari, idazten hasia zen, izan ere, 1903an, dagoeneko, bada bere artikulurik Donostiako *Euskal Erria* aldizkarian. Bitxikeria modura aipa dezagun 1906an, Madrilgo Variedades aretoan, *Viva los Alpes* izeneko komedia estreinatu zuela.



Bergarako Seminarioan dominiko batekin.



Lan-mahaian ikasle-garaian.


EUSKALGINTZAREN PLAZARA

1907a urte erabakiorra izan zen Mujikaren ibilbidean. Apirilaren lehenean, Euskal-Esnalea elkartearen sorrerako batzarrean aurkituko dugu, Zumarragan, Serapio aitarekin batera, Arturo Kanpion, Karmelo Etxegarai, Domingo Agirre, Julio Urkijo eta abarren artean. Urte bereko uztailaren 28an Elgoibarko Euskal Jaietan hitzaldi bat eman zuen, "Euskeraren alde" izenburupean. *Elgoibar'ko albiste kondairatsuak* lanarekin saria irabazi zuen Euskal Jai horietan. Ordurako Urkijok urte hasieran sortutako *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoan ere idazten hasia zen. Horko bere lehen artikulua, "Euskaldun gazteriari", bero eta

zirikatzailea zen, pasarte honetan ikus daitekeen bezala:

Eta guk, euskaldun gazteak, arnasa eta otsarearen adiñetan gauden euskaldun gazteak, egon bear degu geldi, ixilik eta besoak gurutzetuta gure izkuntza nola galtzen dan ikusiaz? Itxi egin bear ditugu begiak eta utzi kanpoko jendeari, guk geiena maite bear degun gauza izkutatzen? Euskaldun gazteak, badegu biotzik ala ez? Maite degu euskera edo ez?

Eztabaida piztu zuen artikulua, eta Gregoriok, etsita, RIEVeko kontuak bukatu zirela beretzat uste izan zuenean, hara non Urkijok beste artikulua bat eskatzen dion derrigor hurrengo zenbakirako.



Elgoibarren 1907 urtean irakurritako hitzaldiaren argitalpena.



Mujika naturazalea arrantzan (kapeluaz).

Horrela bada, hogeita bost urte beteko zituen urtean, gorpuztuta aurki ditzakegu Mujikarengan euskalgintzan hurrengo urteetan garatuko zituen tankerak: ekintzaile, hizlari eta idazle, beti ere jakintza hedatzeko ahaleginetan.

Lanbideari dagokionez, Internacional Institución Electrónica izeneko elkartearen ordezkari izan zen Gipuzkoa, Araba eta Nafarroarako. Era berean, bi erakunderen ordezkari gisa azaltzen zaigu laneko txarteletan: Espainiako Instituto Nacional de Previsión-ena Gipuzkoan, eta lurralde honetako Diputazioaren menpe zegoen Aurrezki Kutxa Probintzialarena. Nola batean hala bestean, Fausto Arozenak dioenez, bere eginkizuna propaganda edo

zabalkunde lana egitea zen. Horren lekuko, *Naitasunez erein* izeneko liburua, 1920an Aurrezki Kutxa Postalak deituriko lehiaketa irabazi eta hiru argitalpen izan zituena, gaztelaniaz bi eta euskaraz bestea. Haur eta gazteei aurreztearen garrantzia erakutsi nahi dien lan hau, egileak garaiko gizartearen arazoekiko zeukan ikuspegi eta kezkaren adierazle da.

Berrogei urtera zihoala ezkondu zen Gregorio Mujika, 1922ko maiatzaren 29an, Aurea Gaiztarroekin. Gonbite-txartelak, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia, jakinarazten du ezkontza Erreterian, Gaiztarrotarren etxeko otoiztegian izango dela. Lazkaoko jatorrikoak ziren Gaiztarrotarrak, baina aitaren lanbideak eraginda Euskal



Willy Koch-ek egindako argazkia.

Herriko hainbat tokitan bizi izanak,
Sestaon, Albizturren eta Artikutzan,
besteak beste, Errenterian kokatu
baino lehen. Gregorio Mujika eta
Aurea Gaiztarro berriz, Donostiako
Ramon M^a Lili kaleko lehen zenbakian
jarri ziren bizitzen.

Han jaio ziren lau seme-alabak:
Jabier, Marizeli, Antonio eta M^a Esther.
Haien oroitzapenean pare bat
zertzelada geratu da ozta-ozta
ezagutu zuten aitaz: euskaraz hitz
egiten ziela beti eta oso txantxazalea
zela, haurrekin jolastia,
mozorrotuzalea, fantasia-piztailea.
Baita naturaren maitalea ere, mendi
eta erreka-ertzetan ibilizalea, bizitasun
handikoa. Umorean, bere buruaz ere
farre egiten dakien horietakoa. Lagun
min zuen Polikarpo Elozegi tolosarrari
bidalitako gutunetan, adibidez,
“mutilzar berritua” deitzen dio bere
buruari adinean aurrera zihoala
ezkontzeagatik. Gaixotasunak bakarrik
lausotuko zuen izaera baikor eta alai
hori.



Lagunekin hiru anaiak: beheko ilaran eskuinetik bigarrena Gregorio
eta laugarrena Jose. Goian ezkerretik bigarrena Leandro.

BIZIPOZA GALDUTA

Zorigaiztoko urtea izan zen 1931garrena Gregorio Mujikarentzat. Gaixorik hasi zuen, gripeak jota ustez. Garai hartan Donostiako Kolon pasealekuan bizi zen Serapiok hurbiletik jarraitu zuen semearen erialdia, eta baita idatzirik utzi ere gora-behera guztiak eskuizkribu batean. Haren kontakizunari jarraituz, otsailaren 15ean, gaueko zortzietan, buruko atake bat izan zuen Gregoriok. Hartatik osatzen laguntzeko apiril osoa Madrilen, Torrelodonesen, igaro zuten senar-emazteek, Aurearen amak han zeukan etxean. Egonaldi hartako pasadizo bat kontatzen du Bonifazio Etxegaraik. Berak dioen bezala, egun historiko batean egin zion bisita, Errepublika ekarriko zuten hauteskundeen egunean, apirilaren 12an. Kalea borbor zegoen hartan, hauxe aitortu zion Mujikak Etxegarairi: “Inoiz jakin ez dudan zerbait egiten ikasi dut: egoten. Orduak eta orduak ematen ditut hemen, kanpoan, libururik irakurri ere egin gabe”.

Donostiara itzulita, maiatzaren 5ean, honela idatzi zion Polikarpo Elosegiri: “Nere burua ez da lengoa, ta janaria pixkanaka pixkanaka ematen asi bear... ¡Nere poza, Poli, lengo kemen eta indarrak baneuzka...!”. Ekainean, berriro Madrilen, oso makaldu eta

goibeldurik aurkitu zuela dio Etxegaraik: “... hain berea zuen irrifarrerik gabe, ahotsa apaldurik, begirada ilun”. Ekaineko egonaldi horretan Sánchez Banus doktoreak odolean azukrea diagnostikatu zion. Serapiok dioenez, “lasaiturik, diabetea zelakoan”, uztailaren erdialdera Ormaiztegira joatea erabaki zuten, atsedeen har zezan. Baina berriro gaizkiturik, sendagileek ziztada bat egin eta baieztatu zuten buruko tumorea zuela. Uztailaren 19an, goizeko hiruretan, Donostiako San Inazio klinikan sartzen dute. Emazteari ebaketaren ondoren etxera eraman zezan eskatu zion. Uztailaren 20ko eguerdian ebaketa egin eta hilaren 22ko goizeko hiruretan hil zen. Hileta-elizkizunak Donostiako San Inazio elizan egin ondoren, Erreenterian, Gaiztarrotarren hilobian lur eman zioten.

Gregorio Mujikaren ospearen lekuko, garaiko egunkariek, ez bakarrik Gipuzkoakoek, baita inguruko lurraldeetakoek ere, jaso zuten heriotzaren oihartzuna. Ohar nekrologikoen laudorio kutsuaz gaindi, zalantzarik gabeko miresmena eta maitasuna bildu zuen gizona ageri da. Urtearen bukaeran *Euskalerraren Alde*-k eskaini zion ale berezian, garaiko kultur gizonik ospetsuenek



idazten dute Mujikaren soslaia,
bakoitzak ezagutu zuen arloaren
testigantza emanez: Julian Elorzak
Oñatiko Kongresuan, Anjel Apraizek
Eusko Ikaskuntzan, Jose Eizagirrek
Euskal-Esnalea-n, Antonio Oruetak
Saski-Naski-n, Antonio M^a Labaienek
antzerkian, Jose M^a Estefaniak
literaturan... gainera Engrazio
Aranzadi, Bonifazio Etxegarai eta
Fausto Arozenak hurbileko
lekukotasuna eskaintzen dute
Mujikaren izaera, bizitza eta lanaz.
Resurrección M^a Azkuek honela
erretratatu zuen: “Buruz eta ortzez edo
aurpegiz ere argia zan eta ortzargi
guziak bezela lagungina”.

IZENGOITIAK UGARITASUN SEINALE

Mujikaren idazlanetara hurbiltzeko, erabili zituen izengoitien zerrenda ezagutu beharra dago. Izan ere, bere izenaz sinatu baldin bazituen ere idatzietako asko, beste asko izengoitien azpian geratu dira. Ezagunenak hauexek izan zituen: “G. Biona”, bere jaiotetxearen izenean oinarritua, *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal-Esnalea*-n erabili ohi zuena. “J.M. Ojarbide”, jaioterriko beste baserri baten izena hartuz, Bilboko *Euzkadi* egunkarian azaltzen dena

batez ere. “J. Zumuarregi” agian lehen zatian Zumalakarregi herritarra gogoratu nahian, Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian. “Jeme”, izen-abizenen lehen letrak hartuz, *Argia*-n, urtetan bere gain izan zuen “Astea” izeneko atala sinatzeko. “Berrizale”, “Zarzale” eta “Bildari” hau Fausto Arozenarekin batera batez ere kultur kroniketarako erabili zituen, *Euskalerrriaren Alde*-n. *Euskal-Esnalea*-ko “Aztertze” bera da itxura guztien arabera. Antzezlanetarako berriz, izen xeble bat: “Deñoka’tar Gaserio”, dirudienez beste egile batzuekin batera.

9




Izarra Antzerki-salla-n argitaratutako 5., 6. eta 7. zenbakietan Gregorio Mujikaren lanak. Lan hauek “Deñoka’tar Gaserio” ezizenaz sinatu zituen.

Aurreko horiek dira izengoitirik ezagunenak, baina *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal-Esnalea*-n lan xume zenbaiten azpian aurki litezkeen sinadurak ere bereak izan daitezke; hala nola, “Mendizale”, “Berjaldegi” —Ormaiztegiko beste etxe baten izena— eta “Jajai”.


Izengoiti-zerrenda luze honek Mujikak bere burua gorde nahi izatea baino areago zera adierazten du, bere idatzien ugaritasun eta aniztasuna, gaiari nahiz generoari begiratuta. Izan ere, historiako lan monografikoetatik hasi eta denborapasako txiste edo kontakizun xelebreetaraino zabaltzen da bere argitalpenen sorta.

Lagin gisa, aipa ditzagun historiako lanen artean *Eibar'ko seme ospetsuen berri batzuek* edo *Iturriaga-Kardaberaz-Urbieta*, hernaniarrei

buruzkoa. Maiz erabili ohi zituen gertaera edo pertsonaia historikoak artikuluetan ere, eta horietako batzuen bilduma aurki daiteke Auñamendi argitaletxeak 1962an paratutako *Destellos de historia vasca* izeneko bi aleetan.




Hernanin egindako Euskal Jaietan saritutako lana, 1910 urtean argitaratuta.




1908an Donostian argitaratutako lan honek saria jaso zuen Eibarko Euskal Jaietan.

Antzerkian, ¡Utzi bearko!, Neskame berria eta Gizon bikañak komediak dauzkagu. Era berean 1928an Donostian osatu zen *Saski-Naski*-ko lankideetako bat izan zen, ikuskizuneko atal bakoitzaren sarrerak eta eresiaren hitzak idatziz. Ipuinetan, *Lorak eta ogia*. Eta ezin ahaztu berak pasa zituela paperera lehenengoz Amezketako Fernandoren *Ateraldi ta gertaerak*.


Mujika idazle-kazetariaren mailarik gorenena, dena den, garaikide zituen kultur gizon sonatuenei egindako elkarrizketetan aurki daiteke. Txomin Agirre, Telesforo Aranzadi, Aita Donostia, Karmelo Etxegarai, Juan Karlos Gerra, Kanpion, Pierre Lhande eta Urkijo pasa ziren, besteak beste, bere galdeketa zehatz eta zorrotzetik. Emaizta, halere, ez da elkarrizketa soil, pertsonaia horien erretratu bizia baizik, ñabarduraz betea, bakoitzaren giro eta bizimodua ere jasotzen duela: Urkijo aberats autozalea snob-ez inguraturik, Kanpion nafar odolbero musikazalea, Aranzadi herren egonezin eta ibiltaria... Añamendi argitaletxeak *Los titanes de la cultura vasca* izenburupean bildutako sorta honek Mujika zer eta nola idazteko gai zen erakusten du. Nolanahi ere, bere uztza *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal-Esnalea*-n geratu da nagusiki.



Bergaran 1930 urtean *Saski-Naski*-k antolatutako abesti, dantza eta hitzaldien eskuko iragarkia. Irudiak Gregoriok eginak dira eta programan ikus daitekeenez, garai hartako goi-mailako artistek parte hartzen zuten ikuskizunaren prestaketan.



Ipuin honek lehengo saria irabazi zuen *Euskal-Esnalea* elkarteak 1910 urtean antolatutako "ipuin-batzaldian".



1948ko edizio hau Zarauzko Itxaropena moldiztegiaren egin da. Azalerako irudia Txiki margolariaren egin.



Añamendik 1962 urtean paratutako edizioko alea dugu hau.

EUSKALERRIAREN ALDE (1911-1931), KULTUR ZABALKUNDEA


1911garren urtean sortu zuten Arturo Kanpion, Julio Urkijo, Karmelo Etxegarai eta Domingo Agirrek *Euskalerriaren Alde*, zuzendari Gregorio Mujika izendatuz. Euskal kulturako aldizkari gisa definitzen dute hasieratik sortzaileek, politika kanpora utzita. Mujika aukeratu izana arrazoitzean, honen merituak aipatzen dituzte: euskaraz eta gaztelaniaz idazle trebea izatea, ordurarte hizkuntza bietan argitaraturiko lan literario eta historikoek erakusten duten bezala. Izendapen horretan Mujikarengan konfiantza osoa daukatela sumatzen da.

Euskalerriaren Alde gaztelaniaz idatzita dago. Hamabostekari gisa hasi zen, gero hilabetekari izatera pasatzeko. 1931ko amaiera arte argitaratu zen, eta azken alea, urte horretako abendukoa, zuzendari izan zenari eskaini zitzaion.

Hogei urteko ibilbidean *Euskalerriaren Alde* herri hau bizitzen ari zen Pizkundearen ispilu izan zela esan daiteke. Batetik bertan idaztera bildu zirelako garaiko intelektual euskaltzaleak, ez bakarrik konsagratuak, baita hasten ari zirenak

ere. Bestetik, Pizkunde horren lekuko izan zelako, neurri handian Mujikak berak idatzitako kroniken bidez.

Izan ere, “Berrizale” sinatuta nahiz Arozenarekin batera erabilitako “Bildari” izengoitiaz, urtetan zehar kulturgintza zabalean gertaturiko ekitaldi guztien berri eman zuen Mujikak. Musika, pintura, antzerkia, kirola, hitzaldiak, argitalpenak, euskararen eta euskal ikaskuntzen aldeko ekimenak... zehatz-mehatz jarraitu zituen. Bere kroniketan gerora musikagintzan hain ezagunak izatera iritsiko ziren Aita Donostia, Garbizu, Guridi, Soroazabal, Usandizaga eta




Lehenengo alearen hasieran asmoen azalpena eskaintzen da.

abarren urratsak aurki ditzakegu, edo pinturan nabarmenduko zirenenak: Uranga eta Zuloaga aitzindariez gain, Arteta, Arruetarrak, Ziga, Zubiaurretarrak, eta geroxeago Flores Kaperotxipi, Montes Iturrioz eta beste hainbat.

Euskal Herriko ekitaldiez gain, hemengo artistek kanpoan egiten dituzten agerraldiek ez diote ihes egiten, eta honela Isidoro Fagoaga tenoreak Milanen edo Emiliana Zubeldia pianojole nafarrak New Yorken izandako emanaldiak jasoko ditu, ahaztu gabe Donostiako Orfeoia, oraindik gaztea, Iruñekoa edo Bilboko Korala, bertako nahiz kanpoko ibilietan.

13



Iraun zuen urteetan zehar (1911-1931), aldizkariaren azalean diseinu-aldaketak egin ziren.

KAZETARI SENA

Mujika ez da, haatik, arte ederretara mugatzen, eta bere kroniketan berdin aurkituko ditugu hegazkintzako lehen ikuskizunen berriak edo euskal futbolaren estreinako pausoak. Hurbiletik jarraitu bide zuen kirol hori ere, besteak beste, anaia gazteena, Jose, gerora Donostiako alkate izango zena, futbolaria zuelako.

Gregorio Mujikaren heziketa teknikoa eta zenbakietarako joera nabarmen ageri da *Euskalerraren Alde*-ko zenbait idatzitan. Erroldan oinarrituz, datu geografikoak, biztanleriari buruzko estatistikak, gariaren uztaz eta abereez, hauteskundeetako emaitzak, soldaduskara joandako mutilei buruzkoak eta hauen alfabetatze-mailari dagozkionak... azalduko ditu 1923 eta 1924an zehar, grafiko eta guzti. Garai hartan ez ohikoa gertatzen da euskal aldizkari batean horrelako informazioa ematea, batez ere, taxututa dagoen moduan.

Oso bestelakoak izanik, *Euskalerraren Alde*-n Mujikak Lehen Mundu-Gerrak iraun zuen bitartean idatzitako kronikak nabarmentzen dira. 1914an, Gerra hasi berri, eta neutraltasun aitortpena egin eta gero, Bidasoaz bestaldeko euskaldunek

gatazka horretan duten partehartzeari buruzko kontakizunari ekiten dio. Horren bidez jakingo dugu Iparraldeko soldaduen berri: nola dabiltzan herriminak jota, hizkuntzarekin dituzten arazoak direla eta, euskaldunentzako ospital bat sortzeko egindako ahalegina, zaurituak —Georges Lacombe euskaltzalea adibidez—, hildakoak... Bizitasun izugarriko idatziak dira, Iparraldeko senideak jasaten ari ziren zorigaiztoaren aurrean Mujikak sentitzen zuen samin eta elkartasunaren frogia.




Mendibururen omenezko monumentuaren inaugurazioan Oiartzunen, 1922ko abuztuaren 5ean.

Aipaturikoez gain, beste mota batzuetako lanak ere idatzi zituen Mujikak *Euskalerriaren Alde*-n. Ezin ahaztu Eusko Ikaskuntzaren sorrerako kongresuaz (Oñati, 1918) egindako kronikak edo Euskal Jaiei buruzkoak. Horrelakoetan Mujikak bere kolore-paleta osoa mahairatzen du: dagokion herriko historia ezagutaraztetik hasi eta festan aureskua dantzatu zutenen zerrendaraino, lan-saioen berri ematea ahaztu gabe.

Idazkera argi eta zuzenekoa, *Euskalerriaren Alde*-ko Mujika kazetari gisa gailentzen da. Beti ere garaiko estiloaren barruan, baina erretorikan galdu gabe, zehaztasun izugarritz, irakurleei beste batzuek egiten zutenaren berri argi eta garbi adierazte horretan maisu. Tarteka bere pentsaera eta jarrerak agerian azaltzen baditu ere, kontakizun soilari ematen dio lehentasuna, kazetari lan hutsari.


15



Jon Zabalo Ballarin,
Txiki, garaiko
irudigilerik
oparoena.

Bere idatziekin batera sarritan aurkituko ditugu argazkiak. Norenak diren esaten ez bada ere, berak eginak direla jo daiteke. Izan ere, Mujika argazkigilea ere bazen, trebea gainera, sendiak gordetzen duen bildumak erakusten duen bezala. Erreportajetik estudioko argazkigintzatik baino hurbilago, zainduak eta gusto handikoak dira haren argazkiak. Eta nolanahi ere bere idatzia eta aldizkari honetan nahiz *Euskal-Esnalea*-n argitaratutako beste lan batzuk argazkiz hornitzeak kazetari-sena erakusten du.

Era berean marrazkiak ere erabili ohi ditu argitalpenetan, askotan Jon Zabalo, *Txiki* irudigile apartarenak. Kulturako berriak biltzen dituen sailean, “De todo el País” izenburupean argitaratzen den hartan, bada ezaugarri modura marrazki esanguratsu bat: gizonezko bat, lan-mahaian eserita, telefonoa eskuan, albotik sareko zutoin eta hariak iragaten direla. Mujikak modu horretara ikusi bide zuen bere burua, komunikazio-bideen bitartez berriak jasotzen nonahitik, horiek gero inprentaratu eta jakinarazteko.




EUSKAL-ESNALEA (1908-1931), AITZINDARI

Euskalerriaren Alde-n Mujika kazetaria, kultur hedatzailea, aurkitu badugu batez ere, *Euskal-Esnalea*-n Mujika hizkuntzaren aldeko ekintzailea nabarmenduko zaigu. *Euskal-Esnalea*, Arturo Kanpion patriarkaren “¡Gora Euskera maitagarria!” lematzat hartu eta hizkuntzaren galerari harresiak jartzeaz gain, esparru berrietara zabaltzeko ahaleginean elkarte aitzindaritzat jo dezakegu. Eta hor, etengabeko arnasemate eta zirikatze-lanetan, Gregorio Mujika. 1907an Zumarragako sorrera-batzarrean zaharragoen itzalpean ageri da eta hiru urte geroago, 1910eko batzarrean, elkarteko idazkari izendatu zuten.

Ordurako, *Euskal-Esnalea* buletinaren lehen zenbakian, 1908ko urtarilaren 15ekoan, Mujikaren aipamena ageri da. Hain zuzen ere, aurreko urtean Elgoibarko Euskal Jaietan emandako hitzaldia liburuxka batean argitaratu duela eta. Hitzaldiaren izenburuak, “Euskeraren alde”, bere xumetasunean, Mujikaren bizitzako leloa adierazten du jadanik.

Euskal-Esnalea Tolosan hasi zen argitaratzen, hilabetekari gisa, eta gorabehera zenbait tarteko, hamabostekari bihurtu zen gero, 1911tik aurrera *Euskalerriaren Alde*-ren senide eta gehigarri modura. Euskaraz idazten zen gehienbat, baina ez osorik. Kontuan hartu behar da garai hartan oraindik euskaltzale eta euskalariak erdara —gastelania Hegoaldean, frantsesa Iparraldean— erabiltzen zutela gehienbat beren idatzietarako.

Mujikak bi hizkuntzetan jardungo du *Euskal-Esnalea*-n, bere izenez, nahiz izengoitiz, eta era guztietako gaiak jorratzeko.



Euskal-Esnalea-ren 1908ko lehen zenbakiaren orrialdean: “naiz euskeraz, ta naiz erderaz (beti euskalgayez ordea) mintza bedi...”. Aldizkari berriaren helburuen artean euskaldungoaren hizkuntz kontzientzia piztea nabar eta ageri azaltzen da.

Badaude *Euskalerriaren Alde-n* argitaratutakoen antzekoak —Eusko Ikaskuntzaren kongresuen berri, Euskal Jaietako kronikak—, baita beste modu askotakoak ere; hala nola, Jose Manuel Etxeita eta Hiriart-Urrutyren soslaiak bata eta bestea hil zirenean, pertsonaia ilustreen biografiak, Balentin Olano Foruen aldeko ekintzaile azkoitiarrarena bezala, ipuin zaharrak, antzezlan laburrak eta abar. Nolanahi ere, hizkuntzaren gatazkari dagozkionak dira ugarien. Mujikak bi aldeak lantzen ditu esparru horretan: batetik euskara eguneratze eta txukuntzeari dagokiona, eta bestetik euskararen aurkako jarrera eta egiteak salatzeaz gain, hizkuntza gizartearen arlo guztietara hedatu beharrarena.

Horrela, euskara eguneratzeari buruz planteatuko du, adibidez, berandu izan baino lehen aurrerapenak eskatzen dituen hitz berriak asmatu beharra, hala nola hegazkintza estreinatu berriari dagozkionak, *aviadoria*, *aeroplanua* eta *aterrizatu* bezalakoak errotu baino lehen. Hizkuntza txukundu beharraz ere azaltzen du kezka, *erruedea*, *kamiñoa* eta antzekoen ordeztu *gurpila*, *bidea* eta abar idatzi behar direla esanez, baina aldi berean garbizalekeria ez du gogoko, ulermena zailtzeagatik. Oreka bilatuko du horretan ere. Herriak darabilen hizkeratik gehitxo urruntzearen beldur, komunikazioari emango dio lehentasuna.



Hamabostekari bihurtzen deneko lehenengo alean egiten den agurra eta bigarren aldi honetako aldizkari baten azala.



EUSKARA NORANAHI

Dena den, hizkuntzaren zabalkundea jorratuko du, batez ere. Hasteko, kontrako jarrera eta egiteak salatuz. Umore finez kontatzen du, esaterako, nola uler daitekeen Donostiako komun publikoetan iragarki guztiak gaztelaniaz ezezik, frantsesez, alemanez eta ingelesez ere idatzita egotea eta ez euskaraz. Bidegabekeria non, Mujikaren hatza han: euskarazko hitzaldirik ez dela egiten halako elizatan, aurrezki kutxa eta banketxeek dena gaztelaniaz daukatela... Iparraldeko Eskualtzaleen Biltzarrak frantsesez soilik idatzitako batzarrerako gonbitea ere ez da libratzen bere kritikatik.

Eta alderantziz, euskarak esparru berriak irabazten dituenean, han dago Mujika txalo jotzeko hori eragin duenari. Honela, Gipuzkoako Posta Zerbitzuko zuzendariari estankoetan banatu dituen iragarkiak bi hizkuntzetan egoteagatik zorianik beroenak eman eta postetxe berrian iragarki guztiak horrela ezartzeko eskatzen dio, adibidez. Edo Errenterian Udalak eta lantegietako ugazabek langileei zuzendutako ohar batzuk euskaraz jarri izana goraipatu eta beste batzuek jarraitu beharreko bidetzat aurkeztuko du.

Beste maila batean, funtzionarioak —maisu, notario, epaile eta abar— euskal hiztunak izan daitezen, batez ere, Gipuzkoako Diputazioak egiten dituen ahaleginak, oso gertutik zaintzen ditu. Edo Madrilgo Gorteetan katalanek beren hizkuntzaren alde egindako aldarrikapenak eredutzat hartu eta Euskal Herriko politikoei kontuak eskatzen dizkie. Eta etengabe, urte bakoitzaren hasieran, irakurleak zirikatuko ditu, alferkeria eta hitz hutsak alde batera utzi eta euskararen aldeko jarrera ekintzailea har dezaten.

Aldi berean, euskararen alde beste jende eta talde batzuek egiten dutena plazaratzen saiatzen da *Euskal-Esnalea*. Urtez urte ikusiko dugu Eusko Ikaskuntzaren sorrera ez-ezik, Euskaltzaindiarena ere, eta beronen lehen batzar eta erabakien berri. Era berean euskararen aldeko beste talde batzuen gorabeherak, hala nola Bilbon

19



Serapio aitaren ondoan entzuleen lehen ilaran, 1922 aldera.

sortutako Euzkel-laguntza izeneko elkarte bitxiarena edo geroago, Euskeraren Adiskideak izenekoarena.

Irakaskuntzaren arloan kanpaina bat bultzatuko du *Euskal-Esnalea*-k, gurasoek erakundeei eska diezaieten eskoletan euskara irakasteko. Ordurako bazen ikastola bat, Migel Muñoa jaunak Donostian zeukana. Ezagutu beharrekotzat jo zuten *Euskal-Esnalea*-koek, eta bisita egin zioten 1916an. Hori dela eta erreportaje bat argitaratuko du Mujikak buletinean, argazki eta guzti, garai hartako euskarazko argitalpenetan berritzailea gertatzen den kazetari-estiloan.

Euskal-Esnalea-k euskarazko lanen ekoizpena sustatzeko idazketa-lehiaketak antolatu ohi zituen, atal desberdinetan, eta baita sariketa xumeak ere, adibidez izotz-lantegi bati izena euskaraz jartzeko. Lehiaketa horien bidez plazaratu ziren hainbat idazle berri, tartean ordurarte nekez azaltzen diren emakumezkoak. Gainera hauetako batzuk elkarteak antolatu ohi zituen hitzaldiak ematen ere aurkituko ditugu. Beti ere ageri da zuzendaritzaren ahalegina jendearen partehartze zuzen eta dinamikoa bultzatzeko. Bide horretatik, *Euskalerriaren Alde*-rekin batera Euskal Jaiak eratu zituen hainbat herritan, arrakasta handiz. Ez zen gutxiagorako: lauzpabost egunez, mota guztietako ekitaldiak burutzen baitziren, hasi

musika eta poesia errezitaldietatik eta baserritarrentzako lehiaketetaraino, meza eta banketeak ahaztu gabe, dena agintari erlijioso eta zibilen itzalpean.

Propaganda-lan horrek izan zituen oztopoak. 1912an Otsagabian egitekoa zuten batzarra bertan behera uztea erabaki zuten, nazionalisten ekitaldi politiko mozorrotu bat omen zela esanez zabaldu ziren zurrumuruengatik. Lau urte geroago adur hobea izan zuten Bilbon antolaturiko batzarrean. Campos Elíseos antzokian bost mila lagun biltzera iritsi ziren. *Euskal-Esnalea*-k Euskal Herriko hiririk industrialenera joan nahi izan zuen, apropos, hizkuntzaren aldarrikapena egitera, gune horrek zeukan garrantzia kontuan hartuta. Aldez aurretik, zuzendaritza osoak, Mujika barne, honela dei egin zuen batzarrerara: “Iritzi guztietako giz-emakumeak, mota guztietako Lagundi, Batzoki, Elkarte ta antzekoak atozte guregana, guzientzat egingo dugu toki gure aldamenean, euskera maite badezute beintzat”.


Mujikak ekitaldi hartan emandako hitzaldian euskararen etsaiak ugarituz zihoazela aipatu zuen, ugarituz, hain zuzen ere, hilzorian zegoen euskara arnas berria hartzen ari zela ikusi ahala. Eta bere estiloric sutsuenean, hauxe zioen: “Ongi etorri bitez euskararen etsai horiek, gure berpizkundearen ispilu baitira”.



EUSKO IKASKUNTZATIK SUSTATZAILE

Eusko Ikaskuntzari sorrera eman zion kongresuak (Oñati, 1918) kronikari hurbileko eta orojakilerik izan baldin bazuen, hori Gregorio Mujika izan zen. *Euskal-Esnailea*-n aurkituko ditugu horren aipamenak, baina kronika osoa, ideia sortu zenetik eta kongresuko atal desberdinetan hartu ziren erabakietaraino, ekitaldi artistiko eta festak barne, *Euskalerriaren Alde*-n argitaratuko du. Esan beharrik ez dago barru-barrutik jarraitu zituela urrats guztiak, kongresu hartako idazkaria izan baitzen.

Mujikak berak hitzaldi bat eman zuen Historia-sailean, zezenetarako zaletasunari buruz. Bera aldekoa baino kontrakoa gehiago izan arren, sokamuturra eta zezensuzkoaren ohiturak deskribatu zituen. Baina hitzaldi nagusia, amaierako ekitaldikoa izan zuen. Hor, astebeteko jardunaldien balantzea egiteaz gain, euskalgintzaz zeukan filosofia aurkituko dugu: bihotzen batasuna, iritzi eta pentsamendu desberdinen gaintik erabakiortzat jotzen duen une historikoan.



Serapio aitarekin Azpeitian, 1921eko azaroan.

Eusko Ikaskuntza erakunde bihurturik, Anjel Apraiz idazkari eta Mujika, berriz, honen ordeko izendatu zuten. Lehen buletineko artikulua, “Gure Deya”, berari zor zaio, sinatu gabe doan arren.

Eusko Ikaskuntzaren barrutik arloz arloko proposamenak luzatzeari ekingo dio. Adibidez, euskarazko antzerkia bultzatzeko egitasmo oso bat zirriboratu zuen, 1920an deialdi modura plazaratuko zena. Egitasmo horretako atal nagusiak hauexek: lehiaketak, antzezlanak nahiz antzeztalde onenak saritzeko eta —hemen Mujika berritzailea— gignolerako. Zalantzarik gabe, bide modernoak ireki nahi zizkion antzerkiari. Honetan argigarria gertatzen da Antonio M^a Labaienek aitortutakoa, alegia, eztabaidaren bat

izan zutela bien artean, Mujikak euskarazko antzerkigintza tipismoz kutsatuegia jotzen zuelako.

Irakaskuntzarako ere proposamen zehatzak egingo ditu, hala nola euskarazko eskola hasi berriei babesa ematea. Haurrentzako liburuen beharraz jabeturik, *Euskal-Esnalea*-ren lehiaketa batean saritutako Ixaka Lopez Mendizabalen *Xabierto*, oraindik ere xarma izpirik galdu ez duen liburu eder hori argitaratzea, berari zor zaio.



Euskal Jai batean.



Oñatiko Unibertsitatea. (Pemanen artxiboa)

HIZLARI BIHOZKOIA

Honenbestez, argi ikus daiteke Mujika hedatzaile eta eragile izan zela batez ere. Garaikideek, gaztelaniaz, “publicista” gisa aipatzen dute. Hau da, jakintzaren zabaltzaile, eruditoen eta jende arruntaren arteko zubia eginez, beti ere hizkuntza eta herri honetako kultura ardatz hartuta. Honela ulertu behar da *Pernando Amezketarra*. *Bere ateraldi ta gertaerak*, 1927an argitaratutako liburua idatzi izana. Mujikak herri-tradizioari heldu zion, jende xumearengan irakurzaletasuna pizteko helburuaz, eta honela gaurko hitzetan *best-seller*-a deituko genukeena kaleratu zuen.

Zabalkunde-lanean ez zen, haatik, idatzira mugatu. Mujikak hitzaldien bidea ere jorratu zuen. Gogoko zituen historia eta tradizioko gaiak, hala nola sorginak edo lehen aipaturiko zezenzaletasuna. Baina gainera propagandista izan zen, mitinzalea nolabait, batez ere hizkuntz gatazkaren arloan. Mota desberdinetako euskal jai eta ospakizunetan, sarritan aurkituko dugu hizlari modura, batez ere Gipuzkoa eta Nafarroan; hala nola, Eibar, Elizondo, Irun, Leitza, Lekunberri, Oiartzun, Segura eta Zarautzen. Berebiziko dohaina omen zeukan era

guztietako entzuleengana iristeko,
haiengan arreta bizia piztuz.
Idazkeran bezalaxe, ulerkorra eta
argia hizkeraren aldetik, eta aldi
berean su eta garra zeriola bihotzak
ukitu ahal izateko.



Zarauzko Euskal Jailetako epaimahaia.

PENTSAMOLDE ZABAL ETA BERRITZAILEA

Mujikaren obra nagusiak,
Euskalerriaren Alde eta *Euskal-
-Esnalea*, berarekin batera hil ziren,
nahiz eta ordurako lekukoa harturik
zieten beste mugimendu batzuek.
Bernardo Estornes Lasak honela
kontatzen du Mujika oraindik bizi zela
gertatutako txanda-aldaketa hori:

‘Euskaltzaleak’ sortzeko zorian
zegoen. Berriek hutsa zekiten zaharrek
egindakoaz. Baina Mujikak, izaera
maitekor, bateratzaile, eta batez ere
sustatzailekoa izanik, jende berriari
babesa eman zion eta ateak zabal
zabal egin. Ordurarte figura
nabarmenena bera zen. Handik aurrera
antolatzaile bikain baten eskuetan
jarriko ziren, misioen zabaltzaile
beteranoa zen Aitzolen eskuetan.

Jarraipena beraz, beste izen eta
tankera batzuekin izanda ere, ziurtaturik
zegoen. Euskalgintzak urterik
aberatsenetakoak bizi izango zituen,
harik eta 36ko Gerra zantzu guztiak
ezabatzen saiatu zen arte.

Dena den, harritu ere egiten du
Gregorio Mujika urteetan zehar nahiko
ahaztua egon izanak. Lan eskerga hura
nolabait umezurtz geratze horretan izan
dezake zerikusirik bere ibilbideak: ez
zen inolako alderdi politikotan sartu.

Zalantzarik gabe, ez zen irizpiderik gabeko gizona, inolaz ere, baina taldekeriak albora utzi eta nahiago izan zuen zabaltasunez jokatzeari, iritzi eta jarrera desberdinetakoen artean aurki zitezkeen batasun-puntuak azpimarratuz, eta beti ere elkarlanaren bila jarrita. Ozenki aldarrikatzen zuen batasun hori, Oñatiko Kongresuaren amaiera-hitzaldian egin zuen bezala, eta bere esanekin bat, praktikan jartzen zuen. Hala aitortzen du Engrazio Aranzadik: “Beti ere izugarrizko arreta jarri zuen euskaltasuna indartzeko, bere senideen artean erreparatzen zituen kointzidentzia oro zainduz”.

Ikusmiran, Euskal Herri osoa. “Bidasoaz bestaldea” behin eta berriz aurkituko dugu bere kroniketan, hango euskaltzale eta elkarrekin zeuzkan harremanen lekuko. Nafarroan berriz propagandista-lanetan ikusiko dugu usu, *Euskal-Esnalea*-ren bidez batez ere. Gipuzkoako Diputazioan zeuzkan harremanetan oinarrituta, Hegoaldeko beste hiru Diputazioen lankidetzara bilatuko du euskaingintzaren proiekturik garrantzitsuenetarako.



Aurrezki Kutxako lanetan Eskoriatzan, 1928ko apirilaren 19an.

Euskal Herri aurreratua nahi zuen Mujikak. Gizartearen arloan, bere lanbidea tarteko, aurrezteari buruz egindako idatziek, besteak beste, hori adierazten dute. Aurreztea ongizatearekin lotzen du beti. Ez dabil alferrikako aberastasunen bila, bai ordea herritar orori zahartzaro aisea ziurtatuko dion aurreikuspena iragartzen.

Euskal kultura, ondo baino hobeto ezagutzen zituen historian eta tradizioan sustraitua planteatzen du Mujikak, baina ondare hori kritikaren galbahetik pasaz. Honela, behin eta berriz idatziko du, adibidez, idi-proben kontra. Herria horien zale izan arren, Mujikak ez du beldurrik izango kritikatzeko, ezta agintariei kontrako neurriak har ditzaten eskatzeko ere. Bide batez, berdin salatuko ditu idi-proben kontra bai, baina zezenezaleak direnak. Gaur egungo terminologiari helduz, Mujika ekologista aurkituko dugu hemen.

Halaber, herri-izaera eta ohituren maitalea izan arren, folklorekeriak ez ditu gustoko. Gizon ikasia, munduari irekia, berritzailea, euskara eta hizkuntza honetako kultura modernotasunarekin lotu nahi zituen. Hortik bere garaian musikan eta artean oro har gertatzen ari zenaren jarraitzaile hain zintzoa izatea.



25

Bide batez, Mujikak erakargarri egin nahi ditu beti euskara eta hizkuntza honetan ekoizten dena. Horrela aitortzen du Aita Donostiak *Saski-Naski* ikuskizuna prestatzen ari ziren garaian elkarrekin izaten zituzten solasaldiez: “Saihestu beharreko joera eta oztopoak, ideien trukaketa... euskal sena nonahira zabal zedin, gozo, erakargarri, atsegin...”.

Bere idatziak ahalegin horren eredu dira. Baina gainera espreski ere azaltzen da erakargarritasun horren alde. Euskarazko egunkari bat behar zela, egin ote zitekeen, nola... eztabaida izan zen *Euskal-Esnalea*-ren butelinean. Mujikak, azkenean, emango du bere iritzia: egunkaria egiteko baldintza egokirik ez dagoela eta, asterokoaren alde agertzen da.



Hizlari Leitzan 1927ko abuztuaren 13an.

Nolanahi ere, zein eratako argitalpena nahi duen, pasarte hauxe argigarri:

¿Ez al dauzkagu, ba, asteroko ta amabosteroko ta illeroko ugari? Bai, noski, baña, egia esateko, kopeta beltza dute guziak, astunegiak dira, apañegiak izketan, lotuegiak ibilkeran... (...) Ume bixi, ibilkoi, argi, alai, itzontzi berritsu bat bear degu: itzari geiegi begiratu gabe itzegingo duana, ezpañetan far-irria ta begietan argi ugaria duala, toki guzietan sartuko dan umetxo jostalari ta atsegiña: astero-astero munduan zer gertatu dan labur ta alai esango diguna.

27



Zumalakarregiri egindako omenaldia Urrietan, 1929ko urriaren 17an.

Erakargarritasuna, beraz, azpimarraturik, zertarako: ahalik eta jende gehienarengana iristeko, eta bide batez txokokerian gelditu gabe, mundura begira.

Mujikak, zalantzarik gabe, opa zien bere herritarrei berak zeukana: kultura zabal eta irekia, ongizatea, nork bere eskutik zuzendutako ibilbidea. Jomuga horiek izan ziren bere bizitzaren ardatz. Eta hori da, hain zuzen ere, hark euskalgintzan eta herrigintzan utzitako ondarearen zukua.



Omenaldia Ormaiztegiko Udaletxean. Gregorioren aita, Serapio, eta semea, Javier, oroitarria agerrarazten. Ekitaldi honetan Eusko Ikaskuntzaren Udako ikastaroetako kideak izan ziren. 1933ko uztailaren 2a.